



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IV. legegintzaldia

Iruñean, 1998ko abuztuaren 28an

63 ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- “La Higuera” putzuan egin diren jarduketei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (2. or.).
- Eluederko iturburuaren egoerari eta Aresoko industrialdearen obrei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Ur Konfederazioak Aresoko Udalari planteatu dizkion arazoei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Nafarroako ubidearen proiektuaren administrazio-izapidatzearen atzerapenari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Nafarroako Ekonomia eta Gizarte Kontseiluan parte hartzeagatik nekazaritza-erakundeei dirulaguntzak emateari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Nafarroako Erriberan industri sustapenerako laguntzak eskuratzeko mugei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).

I SAILA:

Parlamentuko Jarduera:

- 1998ko martxoan egindako bilerak (9. or.).
- 1998ko martxoan Biltzarreko Idazkaritza Orokorrean sartu diren dokumentuen zerrenda (11. or.).

F saila:
GALDERAK

“La Higuera” putzuan egin diren jarduketari buruzko galdera**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak “La Higuera” putzuan egin diren jarduketari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko azaroaren 10eko 73. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko abenduaren 9an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldeko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du “La Higuera” putzuan egin diren jarduketari buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen, Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

1. Izan ote du Ingurugiro Departamentuak Gurelur Elkarrekin salatutako egitateen berri?

Gurelur Elkarrekin idatzi bat aurkeztu zion Ingurugiro Departamentuari putzuan egiten ziren jarduketak adierazteko.

2. Zer egin du Ingurugiro Departamentuak salatutako egitateen inguruan?

Oihanen Antolamendu Atalean ari direnak Milagroko Udalarekin hitz egin zuten, eta bertara joan zirelarik, motzondo gehienak ondoko lurzati batean lurperatu zirela ikusi ahal izan zuten. Hala-ber, jakinarazi zuten beharrezkoa zela gainerako hondakinak putzura botatzea eta landare-lubeta egitea putzuaren ertza babesteko.

3. Zein espezie ari dira jasaten salatutako hondakinek sortutako egoeraren kalteak, Departa-

mentuaren iritziz. Hala bada, zein neurri ezarri ditu edo ezartzeko asmoa du ziprinido eta narrastietan salatu diren kalteak saihesteko?

Ez da uste inongo espezieri kalterik eragin diotarik motzondoak jartzeak eskubiko ertzean, zein sakonagoa den eta ureztatzeko ura hartzeko erabiltzen zen. Halaber, ez dugu heriotzik izan den berririk motzondoak jartzeko lanetan edo lan horien ondoren.

Motzondoak errekak erosi zuten zatietan jarri ziren (zati horiek errekak erosi zuten zatietan frogatzen du garai bateko lubetak, orain putzuan dagoenak). Eta motzondoak mesedegarriak dira arrainek erreka hondoa babesleku naturalak egin ditzaten.

Ekosistema hori osatzen duten ur-espezieek ez dute erruten hondakinak bota diren ertzean.

Ibai ertzetan oihan-espezieak jartzen dira ur-espezieak babesteko. Motzondoak ezponda gisa eta lurrez estalirik jartzeak motzondoak ernarazi ditu; ertz horrek, denbora gutxi barru, zuhaitzak izanen ditu, eta horiekin urbazterreko fauna guztiarentzat itzala.

4. Zein da Ingurugiro Departamentuak gertatutako egitateen buruz ematen duen azalpena, eta beharrezko ikusten al da ikerketaren bat egitea gaia argitzeko?

Azalpena eman berri dena da, eta, Departamentuko teknikoen arabera, ez da beharrezkoa inongo ikerketa irekitzea.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedatuarekin bat.

Iruñean, 1997ko azaroaren 27an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

Eluederko iturburuaren egoerari eta Aresoko industrialdearen obrei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Eluederko iturburuaren egoerari eta Aresoko industrialdearen obrei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko azaroaren 10eko 73. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko abenduaren 9an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldeko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Eluederko iturburuaren egoerari eta Aresoko industrialdearen obrei buruz. Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariaren erantzuna:

1. Nafarroako Gobernuko Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak noiz izan du aipatu egoeraren berri? Nork jakinarazi zion?

Departamentuak Aresoko Udalaren bidez izan zuen horren berri, hain zuzen ere, udal horrek Iparreko Ur Konfederazioari eskaera egin zionean.

2. Iparreko Ur Konfederazioari jakinarazi al zitzaion autobiako obren hondakinen biltegia eginen zela eta Eluederko iturburutik datozen uren gaineko eragina zuela? Nork agindu zuen aipatu erreka hodietan sartzeko obra?

Irurtzun-Gipuzkoako muga autobidearen I fasearen, 2. zatia (Azpirotzeko tunelen bukaera-Gipuzkoarekin muga) espedientea aztertutik ondoren (Cubiertas y MZOV enpresari esleitutako lanak) ez da eskaera hori agertzen.

Hasierako proiektuan agertzen ez ziren lan horiek egin behar izan ziren indusketatik ateratako soberako material ez aproposa botatzeko lekuak behar zirelako. Ez dago agindu formalik. Obra

zuzendaritzak azterketa hidrologikoa egin zuen obraren tamaina erabakitzeko.

3. Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak uste al du jarri diren hodiekin nolakotasun eta neurri nahikoak dituztela iturburutik datozen urak behar bezala ubidetzeko, gaur egun jarrita dauden moduan? Arriskuren bat al dago industrialdearen ingururako euri jasa handiak gertatuz gero?

Departamentuak uste du jarritako hodiaren diametroa (1000 mm) nahikoa dela errekaaren arroaren (20 hektarea) urak hustutzeko.

4. Aurreko erantzunen ildotik: Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak uste al du Iparreko Ur Konfederazioak proposatu duena dela irtenbiderik onena, alegia, erreka desbideratzea zerupearan iragan dadin?

Ikuspuntu hidraulikotik, hodia nahikoa dela uste da, baldin eta hodia behar bezala badago; horrek hodia aztertzeraz eta garbitzeraz behartzen du, eta horren beharrik ez legoke erreka desbideratzea zerupearan iraganen balitz.

5. Nafarroako Gobernuak asmorik al du Aresoko Udalarekin edo Iparreko Ur Konfederazioarekin hitz egiten hasteko, edo jarduketara administratiborik edo bestelakorik burutzeko, gaiari konponbidea emateko?

Departamentu honetan ari direnek izan dituzte zenbait bilera Aresoko Udalarekin, eta horien ondorio izan da bi Administrazioen arteko elkarlan hitzarmen bat sinatzeko hasiera bateko akordioa, horrela Iparreko Ur Konfederazioak eskatutako irtenbidea abiarazteko. Hitzarmena idatzita dago eta Aresoko Udalak du, berresteko, edo, bestela, aldatzeko.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoekin xedatuarekin bat.

Iruñean, 1997ko abenduaren 1ean

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilaria: José Ignacio Palacios Zuasti

Ur Konfederazioak Aresoko Udalari planteatu dizkion arazoei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Inmaculada Matías Angulo Foru Parlamentari andreak Ur Konfederazioak Aresoko Udalari planteatu dizkion arazoei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko azaroaren 10eko 73. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko abenduaren 9an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Nafarroako Demokratien Elkargunea Parlamentari Taldeko Inmaculada Matías Angulo Foru Parlamentari andreak idatziz erantzuteko galdera egin du Ur Konfederazioak Aresoko Udalari planteatu dizkion arazoei buruz. Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariaren erantzuna:

1. Zer arrazoi ditu kontseilari jaunak Aresoko Udala ez hartzeko, udalak behin eta berriz eskatu arren?

Ez dago inongo arrazoi berezirik kontseilari honek Aresoko Udala ez hartzeko. Gertatzen dena ez dela agian aproposena bilera kontseilariarekin izatea, gaiaren arabera, eta eraginkortasunaren eta irtenbiderik hoberenaren mesedetan; aproposagoa da askontan departamentuko beste norbaitekin ezatea bilerak. Horixe gertatu da oraingo honetan. Kontseilariaren Kabinete Buruak Aresoko Udaleko Idazkari andrea hartu zuen, eta planteatutako gaia ikusita departamentuko teknikoengana bidali zuen. Aresoko Udaleko kideek zenbait bilera izan zituzten aipatutako teknikoekin, eta, ondoren, aurreko azaroaren 18an Herrilan Zuzendari Nagusiak hartu zituen.

2. Iparraldeko autobien obraren eta haren osagarrien proiektuak ba al zuen aipamen zehatzik Areson dagoen iturburu baten urak bildu, ubidetu eta eramateko obren xehetasunei buruz? Aresoko industrialdearen goiko aldean jaio, Autobiako kontratistak metro bateko diametroa duten hodietan sartu eta industrialdearen lurrazpitik igarotzen denaz ari gara.

Irurtzun-Gipuzkoako muga autobidearen obra proiektuan, 1 fasearen, 2. zatian (Azpirotzeko

tunelen bukaera-Gipuzkoarekin muga; Cubiertas y MZOV enpresari esleitutako lanak) hasiera batean, zati horretako soberako lurrazpitik botatzeko beharrezko hondakindegia aurrekutsita zeuden; ez zegoen horien artean, ordea, Aresoko hondakindegia.

Hala ere, obrak egin ahala "betelanelarako ez baliogarria" zen indusketa-materialaren kopurua nabariki handitu zen, eta hondakinak uzteko leku berriak bilatu behar izan ziren. Areso aldeak beharrezko ezaugarriak zituela uste izan zen, eta udalaren baimena ere izanik, errekatxo hodietan sartu, eta, ondoren, soberako lurrazpitik botatu ziren gainean.

Industrialdea beranduago egin zen, eta, beraz, esan daiteke hodiaren gainean dagoela eraikia.

3. Eskumena duen konfederazioaren jakinaren gainean egin al ziren aipatu obrak? eta, hodian eta lurrazpitik trazaduraren zehaztasunei buruzko arauak kontuan hartu al ziren?

Obra horien espedientean ez da agertzen Iparreko Ur Konfederazioari eginiko baimen eskaerarik, ezta ur konfederazio horren salaketarik ere.

Departamentuak uste du jarritako hodiaren diametroa (1000 mm) nahikoa dela errekararen arroak (20 hektarea) ekar dezaken ura eramateko.

4. Departamentua prest al dago aipatu ubidea eta autobien kontratistak egin zituen enparauko obrak ordezkatzeko, eta konfederazioak Aresoko Udalari eskatzen dizkionak bere gain hartzeko?

Zenbait bilera egin dira Aresoko Udalarekin, eta horien ondorio izan da bi Administrazioen arteko elkarlan hitzarmen bat sinatzeko hasiera bateko akordioa, horrela Iparreko Ur Konfederazioak eskatutako irtenbidea abiarazteko. Hitzarmena idatzita dago eta Aresoko Udalak du, berresteko, edo, bestela, aldatzeko.

5. Jakin ahal izan dugunaren arabera, Konfederazioak udalari jakinarazi omen dio aipatu obrak egiten ez baditu Elueder izeneko industrialde guztiari ura kenduko diola, Egiaundi izeneko iturburutik datorrena, hain zuzen, eta, beraz, bertan diren enpresa guztiak zerbitzu hori gabe geratuko direla. Uste al du hori zuzena dela edo ekinbideren bat hartuko al du?

Uste dut 4. galderari emandako erantzunak galdera hau ere erantzuten duela.

6. Iparreko Ur Konfederazioarekin gestioen bat egin al da arazoari irtenbidea emateko?

Ez da inongo kontakturik izan Iparreko Ur Konfederazioarekin, ez dela beharrezkoa uste baita, Aresoko Udalarekin sinatutako hitzarmena dela eta.

7. Departamentua jabetzen al da Aresoko Udal, herritar eta enpresentzako erator daitezkeen kalte larriez, autobideko trazaduraren ordezkapenarena konpontzen ez baldin bada?

Hodiaren trazaduraz ari garela uste dut, eta hori Aresoko Udalarekin Elkarlan Hitzarmena sinatzerakoan egingen da.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedatuarekin bat.

Iruñean, 1997ko abenduaren 1ean

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilaria:
José Ignacio Palacios Zuasti

Nafarroako ubidearen proiektuaren administrazio-izapidatzearen atzerapenari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jaunak Nafarroako ubidearen proiektuaren administrazio-izapidatzearen atzerapenari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko azaroaren 10eko 73. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko abenduaren 9an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeko Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Nafarroako ubidearen proiektuaren administrazio-izapidatzearen atzerapenari buruz. Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariaren erantzuna:

1. Zein dira aipatu atzerapenaren arrazoiak?

Ez dugu uste inongo atzerapenik dagoenik, aldiro kontaktuak baititugu Estatuko Administrazio Zentralarekin obren kontratazioaren aurretiko izapideetan aurrera egiteko.

2. Zein dira egiteko dauden izapideak eta horietako bakoitza betetzeko aurreikusi diren epeak?

Egin beharreko lehen izapidea Nafarroako Ubidea eta horren Ereku Ureztagarriaren Ingurugiro Eraginari buruzko Deklarazio prozesua jarraitzea da, eta horretarako lanean ari gara jendaurrean jarri aurreko administrazio prozedurak aurrera eramanez.

Ingurugiro eraginari buruzko deklarazio prozesuak ez du amaitzeko epe jakinik; alegazio kopuruaren eta horien azterketaren arabera amaituko da aipatutako deklarazio prozesua, eta baita Ingu-

rugiro Ministeretzak izapideak noiz amaitzen dituenaren arabera.

3. Zein eragin izanen du atzerapen administrazioak Nafarroako Ubidearen obrak burutzeko?

Lehenengo galderari emandako erantzunarekin erantzun dela uste da.

4. Zein konpromiso finantzario hartu du Estatu-ko Gobernuak, eta 1998ko Estatuko Aurrekontu Orokorretan aurreikusi al dira konpromiso horiek?

Estatuko Gobenuak, 1991ko otsailaren 26an, Elkarlan Protokoloa sinatu zuen Nafarroako Gobernuarekin; horren bidez Estatuko Gobernuak konpromisoa hartu zuen Nafarroako Ubidearen 1. fasearen ehuneko hirurogei (% 60) finantzatzeko, eta Nafarroako Gobernuak, berriz, gainerako ehuneko berrogei (% 40).

Aipatutako elkarlan protokoloari hitzarmen lerruna eman behar zaio, horrela, 1997ko lehenengo seihilekoan, zenbait bilera egin ziren, eta 1997ko uztailaren 3ko Akordio Politikoa lortu zen. Akordio horretan, Espainiako Gobernuak eta Nafarroako Gobernuak Nafarroako Ubidearen finantzazio-konpromisoa, 60/40a hain zuzen, berretsi eta hitzarmenaren testua amaitu zuten. Hitzarmen hori, aurretiko arauzko izapideak egin ondoren, sinatu eginen da.

Estatuko Aurrekontu Orokorrek 114,4 milioi pezetako kontusaila jasotzen dute Nafarroako Ubidea 1998ko ekitaldian eraikitzen hasteko. Aurrekontuan eginiko kontsignazio hori nahikotzat jotzen da aurretik egin behar diren izapideak konpultatuta izanda.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedatuarekin bat.

Iruñean, 1997ko abenduaren 1ean

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilaria:
José Ignacio Palacios Zuasti

Nafarroako Ekonomia eta Gizarte Kontseiluan parte hartzeagatik nekazaritza-erakundeei dirulaguntzak emateari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak Nafarroako Ekonomia eta Gizarte Kontseiluan parte hartzeagatik nekazaritza-erakundeei dirulaguntzak emateari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko azaroaren 19ko 77. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko abenduaren 11n

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Askotariko Parlamentari Taldeko Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak idatziz erantzuteko galdera egin du Nafarroako Ekonomia eta Gizarte Kontseiluan parte hartzeagatik nekazaritza-erakundeei dirulaguntzak emateari

buruz. Hona Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilariaren erantzuna:

Aurtengo Nekazaritza Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuko Aurrekontuan 70.000-4810-7144 kontusaila dago, hain zuzen ere, "Ekonomia eta Gizarte Kontseiluaren barnean dauden nekazaritza erakundeentzako ordaina, bertan parte hartzeagatik" izenekoa, 26924-3 lerroa, milioi 1 pezeta duena.

1997ko urriaren 6ko Foru Aginduaren bidez - NAO n argitaratua, 1997ko urriaren 29an- ezarri ziren kontusail hori banatzeko baldintza, epe eta beharrezko agiriak, beti ere, nekazaritza erakunde bakoitzaren egiazko joate kopuruaren arabera.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedatuarekin bat.

Iruñean, 1997ko azaroaren 27an

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilaria: Ignacio Javier Martínez Alfaro

Nafarroako Erriberan industri sustapenerako laguntzak eskuratzeko mugei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Nafarroako Erriberan industri sustapenerako laguntzak eskuratzeko mugei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko azaroaren 19ko 77. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko abenduaren 11n

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

"Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeko José Javier Sánchez Turrillas

Foru Parlamentari jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Nafarroako Erriberan industri sustapenerako laguntzak eskuratzeko mugei buruz. Hona Industri, Lan, Merkataritza eta Turismo Kontseilariaren erantzuna:

1. Industri sustapenerako zer laguntza mota jaso zitzaketen aipatu herriek, eta Nafarroako Gobernuak zer departamenturen bidez kudeatzen ziren? Neurri horrek finantza-laguntzei eragiten al die? eta korrituak ordaintzeko dirulaguntza eta laguntzei? eta enplegua sortzeko laguntzei? zer neurritan?

Mapa aldatu zenetik, enpresei ematen jarraitu daitezkeen laguntzak, soilik, "minimis" deritzanak dira; laguntza horiek enpresa bakoitzerako 100.000 ecu izatera ere hel daitezke, eta hiru urtetarako (16 milioi pezeta gutxi gora-behera).

Errealitatean, eta aipatutako mugaren barrenean, arlo askotarako laguntzak ematea ahalbidetzen du: inbertsio eta enplegurako laguntzak, interes eta leasingetarako hobariak, kalitaterako, diseinurako, lehiakortasunerako, ikerketa eta garapenerako, etab. Laguntza horiek, jardueraren arabera, Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuak edota Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak kudeatzen dituzte.

2. Zer eragin du eskualde-banaketa horrek bestelako laguntzak jasotzeko garaian? Foru-laguntzez, estatu laguntzez eta Europako laguntzez ari gara.

Enpresa batek jaso ditzakeen estatu laguntzen kopuruak ezin du gaintu, bere izaera edo jatorria edozein dela ere, aurreko erantzunean aipatutako muga, Enpresa Txiki eta Ertainetan inbertsioa eta enplegua bultzatzeko laguntzak izan ezik; laguntza horiek hurrengo erantzunean aipatzen den dekretuak arautzen ditu.

3. Nafarroako Gobernuak zer neurri hartzeko asmoa du aipatu murrizketek ondorio txarrik ez

ekartzeko esandako 23 herriek gure konunitatean osatzen duten garrantzizko eskualde horren garapenerako?

Europako Batasuneko Batzordeak bimensua eman ondoren, Nafarroako Gobernuak, azaroaren 3ko bilkuran, Enpresa Txiki eta Ertainei laguntzak indartzen dituen dekretua onetsi du; horrela, "laguntzarik gabeko eremuetan" ahalbidetu da enpresa txikiei % 15 arteko dirulaguntza ematea eta enpresa ertainei % 7,5 artekoa.

Nahi dena da ahal den indar guztia eman neurri horri, eta "lahguntzarik gabeko eremuetako" proiektuetan gehienezko portzentaiak eman. Neurri horrekin batera, azpiegiturak hobetu nahi dira, hala nola, lurzoru industrialarekin eta energiarekin zerikusia dutenak; eta, halaber, prestakuntza jarkuerak ere bultzatu nahi dira.

Iruñean, 1997ko abenduaren 2an

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilaria: Ramón Bultó Llevat

I saila:
PARLAMENTUKO JARDUERA

1998ko martxoan egindako bilerak

MAHAIA ETA BOZERAMAILEEN BATZARRA

3, 4, 10, 17, 24 eta 31n.

OSOKO BILKURA

11n:

– Nafarroako Lanbide Elkargoei buruzko Foru Lege proiektuari aurkezturiko osoko emendakinak, Nafarroako Demokraten Elkargunea, «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» eta Ezker Abertzalea Parlamentari Taldeek eginak, eztabaidatu eta bozkatzea.

– Estatuko Kontseiluari buruzko apirilaren 22ko 3/1980 Lege Organikoaren 23. artikulua aldatzeko Foru Lege proposamena, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeak aurkeztua, aintzat hartzea, hala bada.

– Nafarroako Administrazio Publikoen Kontratuari buruzko Foru Lege proiektuari aurkezturiko osoko emendakinak, Nafarroako Demokraten Elkargunea eta Ezker Abertzalea Parlamentari Taldeek eginak, eztabaidatu eta bozkatzea.

– Otsailaren 23ko 58/1998 Foru Dekretua, Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legea aldatzen duena, eztabaidatu eta bozkatzea.

– Nafarroako Nekazaritza Ganbarari buruzko Foru Lege proiektuari Ezker Abertzalea Parlamentari Taldeak aurkeztutako osoko emendakina eztabaidatu eta bozkatzea.

– Basa Fauna eta haren habitatak babestu eta kudeatzeari buruzko martxoaren 5eko 2/1993 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proiektuari aurkezturiko osoko emendakinak, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak eta «Socialistas del Parlamento de Navarra», Ezker Abertzalea eta «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldeek eginak, eztabaidatu eta bozkatzea.

25ean:

– Nafarroako 1996ko Kontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua irakurketa bakarrean eztabaidatu eta bozkatzea.

– Gizarte Gaietako Batzordeak Bolondres Lanari buruzko Foru Lege proiektua dela-eta onestitako irizpena eztabaidatu eta bozkatzea.

– Errepideko hiri barruko garraio publikoa arautzen duen Foru Lege proiektuari aurkezturiko osoko emendakina, Ezker Abertzalea Parlamentari Taldeak eginak, eztabaidatu eta bozkatzea.

– Iruñerriko lineako bidaiari-garraioari buruzko Foru Lege proiektuari aurkezturiko osoko emendakina, Ezker Abertzalea Parlamentari Taldeak eginak, eztabaidatu eta bozkatzea.

– Hauteskundeetako Araubide Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren zenbait artikulua aldatzeko Lege Organikoaren proposamena, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeak aurkeztua, aintzat hartzea, hala bada.

– Errioxako Autonomia Erkidegoaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko bide-azpiegiturei buruzko lankidetzaren hitzarmena eztabaidatu eta bozkatzea.

– Romeo Lizarraga jaunak (Ezker A.) aurkezturiko mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Horren bidez Nafarroako Parlamentuak gas-horndiruararen zerbitzua burutzen duten enpresei eskatzen die zenbait kontzepturengatik kobratzeari uzteko.

NAFARROAKO UNIBERTSITATEZ BESTEKO HEZKUNTZA-SISTEMA AZTERTZEKO BATZORDE BEREZIA

3an:

– Madrilgo Complutense Unibertsitateko Psikologia Ebolutibo eta Hezkuntzako Katedradun den Álvaro Marchesi Ullastres jaunaren agerraldia.

10ean:

– Hezkuntza eta Kultura Kontseilariaren agerraldia, unibertsitatez besteko irakaskuntzaren egoerari buruzko bere diagnostikoa eta 1997ko azaroaren 18an egindako bilkuran Batzordeak

onetsitako lan-planaren 3. Atalari buruzko bere iritzia Batzordekideei jakinarazteko.

HERRILAN ETA AZPIEGITURA BATZORDEA

4an:

– Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariaren agerraldia, Bozeramaileen Batzarrak eskatuta, Nafarroako Gobernuak eta Espainiako Irrati Telebistak Nafarroan emisio-ordutegia zabaltzeko sinatuko duten lankidetzaren berri eman dezan.

13an:

– Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariaren agerraldia, Bozeramaileen Batzarrak eskatuta, Iruñea-Baiona ardatza dela eta sinatu den hitzarmenaren berri eman dezan.

– Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariaren agerraldia, Bozeramaileen Batzarrak eskatuta, Itoiz urtegiarekin zerikusia duten zenbait errepidaren eraikuntzaren berri eman dezan.

HEZKUNTZA ETA KULTURA BATZORDEA

5ean:

– Artaxonako Harresiak eta Marcillako Gaztelua ikusteko bisita.

OSASUN BATZORDEA

5ean:

– Nafarroako Demokraten Elkargunea, «Socialistas del Parlamento de Navarra», «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» eta Ezker Abertzalea Parlamentari Taldeek eta Landa Marco jaunak aurkeztutako mozioak eztabaidatu eta bozkatzea. Mozio horien bidez, Nafarroako Parlamentuak "medicamentazo" izenarekin ezagutzen den Dekretuaren aplikazioa gaitzesten du.

31n:

– Osasun Kontseilariaren agerraldia, Bozeramaileen Batzarrak hala eskaturik, farmazi prestazioa dela eta berak egindako adierazpenen berri eman dezan.

EKONOMI, OGASUN ETA AURREKONTU BATZORDEA

5ean:

– Kontuen Ganbarako Lehendakari jaunaren agerraldia, Nafarroako 1996ko Kontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektuaren gainean Erakun-

de horrek egindako txostenaren berri eman dezan.

18an:

– «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldeak aurkeztutako mozioa, Nafarroako Parlamentua Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren progresibitatea murriztearen aurka dagoela adieraztekoa, eztabaidatu eta bozkatzea.

26an:

– Nafarroako Administrazio Publikoen Kontratuari buruzko Foru Lege proiektua eta hari aurkezturiko emendakinak eztabaidatu eta bozkatzea.

NEKAZARITZA, ABELTZAINZA ETA MENDI BATZORDEA

6an:

– Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilariaren agerraldia, FEOGA-Bermeko laguntzen Erakunde Ordaintzailearen ezaugarri eta eginkizunen berri eman dezan.

24an:

– Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilariaren agerraldia, bazkalekuak sortu eta hobetzeko dirulaguntzak emateko irizpideen berri eman dezan.

27an:

– Nafarroako Nekazaritza Ganbarari buruzko Foru Lege proiektua eta hari aurkezturiko emendakinak eztabaidatu eta bozkatzea.

FORU ARAUBIDE BATZORDEA

10ean:

– Nafarroako Lehendakariaren agerraldia, Bozeramaileen Batzarrak hala eskatuta, NAK beste finantza-entitatearen batekin batuko ote den azal dezan.

– Martín Landa Marco jaunak aurkezturiko mozioa, 1998 urtea Giza Eskubideen Urte aldarrikatzeari buruzkoa, eztabaidatu eta bozkatzea.

GIZARTE GAIETAKO BATZORDEA

12 eta 16an:

– Bolondres lanari buruzko Foru Lege proiektua eta hari aurkeztutako emendakinak eztabaidatu eta bozkatzea.

LURRALDEAREN ANTOLAMENDU, ETXEBIZITZA ETA INGURUGIRO BATZORDEA

17an:

– Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren eta Industria, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilariaren agerraldia, Bozeramaileen Batzarrak hala eskaturik, Zolinako putzutik hurbil sortu nahi den hiri bioklimatikoaren proiektuaren berri eman dezaten.

– Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren agerraldia, Bozeramaileen Batzarrak hala eskaturik, etxebizitzetako prezioen bilakaeraren berri eman dezan.

– Xabier Vélez Medrano Foru Parlamentari jaunak egindako mozioa, Bertiz biosferaren erre-serba deklaratzeko aukerari babesa ematen diona, eztabaidatu eta bozkatzea.

31n:

– Basa Fauna eta haren habitatak babestu eta kudeatzeari buruzko martxoaren 5eko 2/93 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proiektua eta hari aurkeztutako emendakinak eztabaidatu eta bozkatzea.

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO PUBLIKO ETA BARNE BATZORDEA

18an:

– «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» eta Ezker Abertzalea Parlamentari Taldeek aur-

keztutako mozioak, Estatu Batuak Iraken eskuhar-tzeari buruzkoa, eztabaidatu eta bozkatzea.

26 eta 27an:

– Nafarroako Lanbide Elkargoei buruzko Foru Legea eta hari aurkezturiko emendakinak eztabai-datu eta bozkatzea.

INDUSTRI, LAN, MERKATARITZA ETA TURISMO BATZORDEA

27an:

– Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kon-seilariaren agerraldia, Bozeramaileen Batzarrak hala eskaturik, Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren berri eman dezan.

– Landa Marco jaunak (Askotarikoa) aurkeztu-tako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Horren bidez Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako Enpleguari buruzko Plana presta dezan.

– «Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentari Taldeak aurkeztutako mozioa ezta-baidatu eta bozkatzea. Mozio horren bidez Nafa-rroako Gobernua premiatzen da Aceralia Taldeko lanpostuak mantentzeko behar diren urratsak eman ditzan.

1998ko martxoan Biltzarreko Idazkaritza Orokorrean sartu diren doku-mentuen zerrenda

2an:

– «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldearen emendakinak. Nafarroako Administrazio Publikoen kontratuei buruzko Foru Lege proiektua.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Ion Iñaki Erro Armendáriz Foru Parlamen-tari jaunak eskaturiko informazioa, Zolinako putzuaren inguruko hiri "bioklimatiko"aren proiektuari buruzkoa.

– Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parla-mentari Taldearen osoko emendakina. Nafarroako

Administrazio Publikoen kontratuei buruzko Foru Lege proiektua.

– Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parla-mentari Taldearen emendakinak. Nafarroako Administrazio Publikoen kontratuei buruzko Foru Lege proiektua.

– Nafarroako Unibertsitate Publikoaren idaz-kia. Hauxe jakinarazi dute: Nafarroako Unibertsita-te Publikoaren urrezko domina Nafarroako Parla-mentuari eman diotela.

– «Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentari Taldearen emendakinak. Nafarroako

Administrazio Publikoen kontratuei buruzko Foru Lege proiektua.

– Zizur Nagusiko Udalaren idazkia. Harekin batera, Osoko Bilkuraren erabakia, hondakin pozoitsu eta arriskutsuen biltegia Iruñerrian jartzeko proposamenari buruzkoa.

– Ezker Abertzalea Parlamentari Taldearen osoko emendakina. Nafarroako Administrazio Publikoen kontratuei buruzko Foru Lege proiektua.

– Ezker Abertzalea Parlamentari Taldearen emendakinak. Nafarroako Administrazio Publikoen kontratuei buruzko Foru Lege proiektua.

– «Unión del Pueblo Navarro» Parlamentari Taldearen emendakinak. Nafarroako Administrazio Publikoen kontratuei buruzko Foru Lege proiektua.

– Patxi Zabaleta Zabaleta Foru Parlamentari jaunaren idazkia. Hauxe eskatu du: Nekazaritza Departamentuaren dirulaguntza eskuratzeko UAGN sindikatuaren zerrenda eta datu pertsonalei buruzko informazioa.

– Patxi Zabaleta Zabaleta Foru Parlamentari jaunaren idazkia. Hauxe eskatu du: 1997an Nekazaritza Departamentutik edo haren bitartez edozein laguntza jaso duten nekazari eta abeltzainen zerrenda, izen eta guzti.

– Ezker Abertzalea Parlamentari Taldearen idazkia. Harekin batera, deklarazioa, Josu Beaumont Barberenaren egoeraz eta Frantziak Espainiari hura entregatuko omen diolakoaz.

– Mariano González Presencio jaunaren idazkia. Harekin batera, materialen ordezkoen zerrendari buruzko txostena.

– LABen idazkia. Hauxe eskatu du: Hezkuntza Erreformatarako Batzorde Berezian parte hartzea.

– Hurrengo andreen idazkiak: Berta M^a Ucar Ventura, María Isabel Chorrut Echávarri, Sara Jorge Napal, Eva M^a García Pérez, María Yolanda San Juan Ancho, Mercedes Pérez Valencia eta Eva María Arnedo Pérez. Administrariak, administrazio izaeraz eta aldi baterako kontratatzeke zerrenda osatzeko oposizio-lehiaketan parte hartu nahi dute.

– Hurrengo andreen idazkiak: Berta M^a Ucar Ventura, Sara Jorge Nadal, Eva María García Pérez eta Eva María Arnedo Pérez. Transkriptoreak, administrazio izaeraz eta aldi baterako kontratatzeke zerrenda osatzeko oposizio-lehiaketan parte hartu nahi dute.

3an:

– Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andrearen idazkia. Hauxe eskatu du: Nafarroako Gorren Elkartek informazioa eman dezala Hezkuntza Erreformatarako Batzorde Berezian.

– Teodoro Jaurrieta Elcano jaunaren idazkia. Parlamentuaren zerbitzuko Administrari izateko lekualdatze-lehiaketan parte hartu nahi du.

– Mozioa, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua "Nafarroako Enplegu Plan" bat egin dezan premiatzen duena, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak aurkeztua.

– Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldearen emendakina. Nafarroako Nekazaritza Ganbarari buruzko Foru Lege proiektua.

– Zenbait Kontseilarik egindako obren esleipenei buruzko galdera, Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak egina.

– José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunaren idazkia. Hauxe eskatu du: Imarkoain inguruko Arkotxain eta Kalamuz erreken gehienezko emariak balioesteko azterketa hidrológico eta hidraulikoari buruzko informazioa.

– José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunaren idazkia. Hauxe eskatu du: espezie babestuak ikertzeko lanak baimentzeko Ingurugiro Kontseilaritzak izenpetu dituen espedientei buruzko informazioa.

– Babestutako espezieekin ikerketa lanak egiteko baimenei buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina.

– «Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentari Taldearen osoko emendakina. Basa Fauna eta haren habitatak babestu eta kudeatzeari buruzko martxoaren 5eko 2/1993 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proiektua.

– María de Eunate Pérez de Rada Arístegui andrearen idazkia. Parlamentuaren zerbitzuko Administrari izateko lekualdatze-lehiaketan parte hartu nahi du.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak egindako galdera baten erantzuna, Administrazioak edo haren Erakunde Autonomoek dituzten mantenimendu, garbiketa eta lan osagarrien mota guztietako zerbitzuei buruz.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak egindako galdera baten erantzuna, kutsadura-guneen kokapenari buruz.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak egindako galdera baten erantzuna, espezie babestuen bilakaerari buruz.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Ion Iñaki Erro Armendáriz Foru Parlamentari jaunak egindako galdera baten erantzuna, Dehesako urtegitik Buñuel eta Ribaforadara bitarteko ubidea egiteari buruz.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak egindako galdera baten erantzuna, zabortegi eta hondakindegia inkontrolatuak direla-eta Nafarroako Gobernuak dituen aurreikuspenei buruz.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldeak egindako galdera baten erantzuna, Estatuko Gobernuak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga eraldatzeko duen asmoari buruz.

– Saguntoko Udalarekin idazkia. Harekin batera, Osoko Bilkuraren erabakia, "Mendebaldeko Saharako erreferendumaren aldeko proposamena" onesteari buruzkoa.

– Miguel Sagastibelza Zabaleta jaunaren idazkia. Itzultzaileak administrazio izaeraz eta aldi baterako kontratatze zerrendan sartzeko.

– Nafarroako Demokratien Elkargunea, «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldeen eta Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andrearen idazkia. Adierazpen politikoa aurkeztu dute beraien kezka adierazteko Frantziak Josu Beaumont Barberena Espainiari entregatuko omen diola-eta.

– Altsasuko Aluminios de Alzania enpresari ezarritako ingurugiro arloko zehapen-espeditariari buruzko galdera, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andrearen idazkia.

– Rosario Baztán Segura andrearen idazkia. Parlamentuaren zerbitzuko Administrazio izateko lekualdatze-lehiaketan parte hartu nahi du.

– Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunaren emendakinak. Nafarroako Nekazaritza Ganbarari buruzko Foru Lege proiektua.

– González Ondo, Virto Totoricagüena eta Jiménez Divasso jaunaren idazkia. Hauxe eskatu dute: Giza Eskubideen Batzorde Berezia bil dadila, beraien semeak Tafallan atzitu dituztela-eta.

– Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunaren idazkia. Harekin batera, gizonezkoen eta

emakumezkoen arteko berdintasunaren alde lan egiteko borondatea berritzeko erabaki-proposamena.

– Hurrengo jaun-andreek idazkia aurkeztu dute: Josu González Merino, Alberto Zurbano Lacalle, María Teresa Armiño Nuin, Mercedes Echeverría Echeverría, Miguel Sagastibelza Zabaleta, María Jesús Eraso Ardanaz, María Carmen Muruzabal Sanz, Arturo Lozano Eder, José Ricardo Gil Bolaño eta María Elena Jaso Aragón. Administrazioak, administrazio izaeraz eta aldi baterako kontratatze zerrenda osatzeko oposizio-lehiaketan parte hartu nahi dute.

– Hurrengo jaun-andreek idazkia aurkeztu dute: Josu González Merino, María Teresa Armiño Nuin, María Carmen Muruzabal Sanz eta María Elena Jaso Aragón. Transkriptoreak, administrazio izaeraz eta aldi baterako kontratatze zerrenda osatzeko oposizio-lehiaketan parte hartu nahi dute.

4an:

– Nafarroako Kontseilu Aholku-emaileari buruzko Foru Lege proposamena, Fermín Ciáurriz Gómez eta Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentariak aurkeztua.

– "Itxaropenaren Telefonoa" aurrekontu-lerroaren betetze mailari buruzko galdera, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andrearen idazkia.

– "ADACEN" aurrekontu-kontusailaren betetze mailari buruzko galdera, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andrearen idazkia.

– ANASAPSen idazkia. Harekin batera, sindurak aurkeztu ditu egoitza psikiatrikoa Ospitale Psikiatrikoaren barruan egitearen aurka.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak eskatutako informazioa, Nafarroako Gobernuak eta hainbat entitatek 1996 eta 1997an aurreikusi edo ezarri hitzarmenen zerrendari buruzkoa.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak eskatutako informazioa, 1996 eta 1997 urteetan garapenerako nazioarteko lankidetzarako proiektu eta erakundeentzako dirulaguntzei buruzkoa.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jaunak eskatutako informazioa, Iruñerriko bizilari-dietarako anbulantzien zerbitzuaren (SAMU-UCI) 1998ko kontratazioarako esleipen-espeditariari buruzkoa.

